

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Igorreko Udala****Kultura eta Kirol Arloaren diru-laguntzak emateko 2020ko deialdia**

Igorreko Udaleko kultura eta kirol arloaren diru-laguntzak lehiaketako araubidearen arabera emateko Oinarri arautzaileak deialdi honekin batera argitaratu dira.

**Lehenengoa. — Helburua**

Deialdi honen helburu nagusia Igorreko Udalerriko Elkarteek kultur eta kirol ekintzak sustatu eta hedatzeko antolatzen dituzten interes sozialeko ekintzak diruz laguntzea da.

**Bigarrena. — Erakunde hartzaileak**

Onuradunak izango dira aurreko atalean azaldutako jarduera sustatzen edo egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak.

Honakoak izan beharko dira:

- Irabazteko asmorik gabeko Erakunde edo Elkarteak, legues eratuak, egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badute eta jarduerak Udalerrian egiten badituzte.
- Pertsona fisikoak, noizbehinkako ekimenez talde baten ordezkari partikularrak direnak, irabazteko asmorik gabekoak badira eta Udalerrian erroldatuta badaude.

**Parte ez hartzeko debekuak**

Pertsona fisikoek eta juridikoek ezin dutela laguntzak edo diru-laguntzak emateko prozesu batean parte hartu eta onuradun izan baldin eta:

- a) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zeha-pen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan.
- b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.
- c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru-arau honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

Halaber, ezingo dira diruz lagundu sexua dela eta diskriminatzen duten jarduera edo ekintzak.

**Hirugarrena. — Eskabideak aurkezteko leku eta epea, eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentu eta informazioak**

- a) Eskabidea, udaleko alkate-udalburuari zuzenduta, udalaren sarrera erregistroan aurkeztuko da, edo Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako bideetako edozeinetatik. Horretarako hogeitaz (20) laneguneko epea izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofiziala argitaratzen denetik aurrera zenbatuta. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:
  - Eskabidea aurkezteko duenaren NANaren fotokopia.
  - Erakundearen IFKren fotokopia, erakunde juridikoa bada.
  - Diru-laguntza eskatzea eragin duen jarduera edo gertakariaren proiektu zehaztua. Horrek, gutxienez, proiektuaren azalpena bildu beharko du, baita zein bizilagun dituen xede, zein helburu lortu nahi den eta jarduerak Igorre udalerriko dakarren interesa ere, jarduerok non eta noiz burutuko diren zehaztu.



- Proiektua eta eskabidea euskaraz edo euskeraz eta gazteleraz aurkeztu beharko da.
  - Eskabidea aurkeztutako urteko aurrekontua, diru-laguntza eskatzea eragin duen jarduera edo proiektuari dagokionez.
  - Eskatzailea irabazteko asmorik gabeko elkarte edo fundazioa bada, dagokion erregistroan izena emateko ziurtagiria aurkeztu beharko du, bai eta erakundearen estatutuak ere, izena emanda duen erregistroak behar bezala zigilatuta.
  - Ogasunak egindako agiria, zerga-betebeharren ordainketa egunean duela egiaztatzen duena. Zergak Igorreko Udalari soilik ordaindu behar dizkioten elkarteek eskabidean erantsiko dute horixe azaltzen duen berariazko aitortpena. Udalak berak ofizioz emango du aipatutako egiaztagiria.
  - Eskatzaileak, indarreko legediaren arabera Gizarte Segurantzarekin behar-tze-harremana badu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du Gizarte Segurantzarekiko obligazio guztiak egunean dituela.
- b) Pertsona edo erakunde batek oraindik ere Udalak aurretiaz emandako diru-laguntzei buruzko egiaztagiria aurkeztu ez badu, ez da bere eskabidea kontuan hartuko.
- c) Aldi berean beste edozein organismo publiko nahiz pribatutan jarduera berbererako diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu bada, IgorreIgorreko udalean aurkeztu den eskabideari erantsi beharko zaio hori azaltzen duen adierazpena. Bertan adierazi beharko da zein erakundetan aurkeztu den finantzatzeko eskabidea, zenbat diru eskatu den, edo kasuan kasu, zenbat jaso den.
- d) Artikulu honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, Udalak, kasu zehatz bakoitzari jaramon egiteko beste dokumentu osagarri batzuk eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen badu.
- e) Eskatutako dokumentuak jada Udalak badauzka, eskatzaileak horiek ez aurkezteko eskubidea erabili ahal izango du, baldin eta aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo egin ziren jarri beharko da.
- f) Eskabideak Oinarri hauetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez baditu, eskumena duen organoak interesdunari agindeia egingo dio, akatsa zuzen dezan. Horretarako gehienez ere hamar eguneko epe luzaezina izango du, eta honako ohar hau egingo zaio: hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusita dagoen bezala.
- g) Eskumena duen organoak diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa hainbanatuko du diru-laguntzen onuradunen artean.

**Laugarrena. – Baloratzeko irizpideak**

- a) Autofinanziaziorako ahalegina (gehienez 40 puntu).
- b) Ekintzetaz gozatzeko ematen diren erreztasunak (gehienez 20 puntu).
- c) Euskeraren erabilera eta sustapena (gehienez 30 puntu).
- d) Berdintasunaren sustapena (30 puntu).
- e) Ekintzaren sustapena gaztetxo eta umeetan (gehienez 30 puntu).
- f) Ekintzaren sustapena adinekoren artean (gehienez 30 puntu).
- g) Taldeko jardunean kurrikulumdun adituen presentzia (gehienez 15 puntu).
- h) Partehartzaile eta kide kopurua (gehienez 25 puntu).
- i) Ekintzen jarraikotasuna urtean zehar (gehienez 50 puntu).



- j) Herriko egutegia bete dezaketen aparteko ekintzen antolaketa (gehienez 95 puntu).
- k) Ekintzaren babes beharra (gehienez 10 puntu).

\* Hizkuntza irizpidei dagokionez aurreko baldintzak orokorrak dira. Honez gain, Euskera ordenantzetan ezarrita dagoena bete beharko da.

Proiektu bakoitza dagokion arlo edo sailak osorik baloratuko du. Hark aholkua eskatu ahal izango die egokitzat jotzen dituen pertsona edo erakundeei.

#### **Bosgarrena. — Bideratu eta ebaztea**

- a) Oinarri berezi hauetan bildutako laguntzak emateko kultur arloko teknikariak eta euskera arloko teknikariak bideratuko ditu.
- b) Ebazteko proposamena emateko eskumena duen organoa Arloko Batzorde Informatzailea izango da.
- c) Ebazpena emateko organo eskuduna Alkatea edo Udalbatza Osoa da.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabete da. Epea zenbatuko da deialdi egokia argitaratzen denetik aurrera, baldin eta deialdiak bere ondoreak geroago egun baterako atzeratzen ez baditu.

Publizitatea egiteko, ebazpena argitaratuko da iragarki-oholean eta, era berean, horren zati bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Diru-laguntza emateaz batera amaituko da administrazio bidea.

Ebazpena jakinarazi gabe gehieneko epea mugaeguneratzen bada, interesdunek emakidaren eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi dela ulertu ahal izango dute.

#### **Seigarrena. — Diru-laguntzaren zenbatekoa**

Igorrelgorreko Udaleko Aurrekontuetako ataletan dagoen kreditua erabiliko da diru laguntza hauek ordaintzeko.

- Eskatutako zenbatekoan ehuneko jakin bat aplikatuz aterako den diru-kopurua izango da diru-laguntza. 5. artikuluan azaldutako irizpideei jaramon eginez lortutako puntuazioa izango da ehuneko hori.
- Jarduerak diruz laguntzeko zenbateko osoa ez da izango jarduera horietarako aurrekontu osoaren %80 baino handiagoa.
- Diru-laguntzak beste erakunde publiko nahiz pribatuk xede horrexetarako ematen dituztenekin bateratu ahal izango dira, baina inola ere ez da egongo behar baino gehiagoko finantziatorik; hau da, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin batuta, diru-laguntzak ezin du gainditu jardueraren kostu osoa.
- Diru-laguntzak batzean behar baino gehiagoko finantziazioa gertatuz gero, onuradunak itzuli beharko du Igorrelgorreko Udalak emandako zenbatekoa, finantzatutako kopuru osoaren gainean berak emandako kopuruaren arabera.

#### **Zazpigarrena. — Aurrekontuko zuzkidura**

Aurrekontu-zainpeketaren zenbatekoa guztira:

- Kirolak/deporte: 70.000 euro.
- Kultura/ cultura: 21.500 euro.
- Guztira 91.500 euro.

Zenbateko hori udalak handitu dezake diru-laguntzen emakida ebatzi aurretik.

#### **Datuen babesa**

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) ezarritakoarekin bat etorrita tratatuko dira datu pertsonalak.



Tratamenduaren arduraduna Igorreko Udala da eta datuak babesteko ordezkaria, berriz, Jose Miguel Serrano jauna Torres (ASSPLUS SL) [dpd@igorre.net](mailto:dpd@igorre.net)

Tratamendu hori ahal publikoak baliatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko egingo da, eskabidea sinaturik ematen den onespren espresua dela bide.

Datuak interesdunari edo haren ordezkariari eskatuko zaizkio, baita beste administrazio, erakunde, erregistro edo entitate publiko edo pribatu batzuei ere, legeak ezartzen dituen mugen barruan.

Lortutako datuak pertsona fisiko edo juridikoak, nortasun juridikorik ez dutenak barne (Elkarteen kasuan bertako burua izango da), esleituta dituzten jarduerak egiteko eta udal zerbitzuak mantentzeko, ematen zaizkien diru-laguntzak kudeatzeko erabiliko dira.

Datu pertsonalak legezko betebeharrak batek aginduta edo interesdunak baimena ematen duenean baino ez dira lagako. Horrez gainera, ez da aurrez ikusten hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara datu-transferentziarik egitea.

Interesdunak eskubidea du bere datuetara sartzeko, datu horiek zuzentzeko eta ezabatatzeko eskatzeko edo tratamendua mugatu edo horren aurka egiteko; horretarako idazki bat bidali behar du helbide honetara: Igorreko Udala, Elexalde kalea 1, 48140- Igorre (Bizkaia)[dpd@igorre.net](mailto:dpd@igorre.net). Bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabil dezake idazkia bidaltzeko.

Halaber, interesdunak emandako baimena kentzeko eskubidea du, baina ez dio eragingo aurretik egindako izapideen zilegitasunari.

Eskubide horietako baten bat baliatzeko aukera mugatu egin daiteke bateraezina denean botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legezko betebeharrak betetzearekin.

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatzagoa argitaratuko da Igorreko Udalaren egoitza elektronikoan, dagokion prozeduran.

Igorren, 2019ko abenduaren 17an.—Alkatea, Illart Gumuzio Larrazabal